



BAZTANGO TOKIKO GOBERNU BATZORDEAK EGINDAKO BILKURA AKTA: 2012/03/09

ACTA DE LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL CELEBRADA POR EL AYUNTAMIENTO DE BAZTAN EL DÍA 9/03/2012

2012ko martxoaren 9an goizeko 11:30ean Baztango Udalak Tokiko Gobernu Batzordea ohiko eta lehenengo deian osatu zuen arauzko moduan deitu ondotik. **MIKEL ORTEGA** alkatea mahaiburua izanik eta ondoko zinegotziak bertaratu ziren:

En Elizondo y casa consistorial, siendo las 11:30 horas del día 9 de marzo de 2012, se reúne el Ayuntamiento de Baztan constituido en Junta de Gobierno Local, en sesión ordinaria y primera convocatoria, tras haber sido convocada la misma en forma legal. Presidida por el alcalde-presidente MIKEL ORTEGA y con la asistencia de los siguientes concejales:

- **FLORENTINO GOÑI**
- **IÑIGO ITURRALDE**

Ez dira bertaratu.

No han asistido:

Eta artatuz, udal idazkaria Iulen Urbiola Loiarte

Asistiendo como secretario, el titular de la corporación, D. Iulen Urbiola Loiarte

1.- AURREKO AKTA

Bilkurari hasiera eman ondotik, Tokiko Gobernu Batzordeak **2012ko martxoaren 2ko** akta baieztatzen du.

Tras dar inicio a la reunión la Junta de Gobierno Local ratifica el acta de 2 de marzo de 2012.

2.- ALKATEAREN EBAZPENA

Alkateak ondoko ebazpena jakinarazten du eta Tokiko Gobernu Batzordeak onartu egin du:

Alcaldía da a conocer la siguiente resolución de alcaldía que la Junta de Gobierno Local confirma:

2012/34 EBAZPENA, Martxoaren 7koa, Baztango Udaleko Alkatearena.

Mikel Ortega Arraztoak, Baztango Udaleko jarduneko alkateak, legalki ditudan eskumenei jarraiki,

ONDOKOA ERABAKIA HARTU DUT:

- Kontutan izanda Baztango Udalak udal aseguru guztiak kontratatzeko prozedura publikoa abiatu duela;

- Ikusita Jorge Oteiza Museo Etnografikoaren poliza aipatutako prozedura amaitu baino 15 egun aurretik bukatuko dela, eta poliza honen kudeatzaileei behin kontsulta eginda eta dauden aukerak behin aztertutak,

ALKATETZA HONEK ERABAKI DU:

RESOLUCION 34/2012, de 7 de Marzo, del alcalde en funciones del Ayuntamiento de Baztan.

Mikel Ortega Arraztoa, alcalde en funciones del Ayuntamiento de Baztan, en virtud de las facultades legalmente conferidas,

OTORGO LA SIGUIENTE RESOLUCION:

- *Teniendo en cuenta que el Ayuntamiento ha iniciado un procedimiento público para la contratación de todas las pólizas de seguros municipales,*

- *En vista de que la cobertura de la póliza del Museo Etnográfico Jorge Oteiza termina quince días antes de que finalice el proceso de contratación de las nuevas pólizas; y tras haber consultado con la compañía que gestiona dicha póliza y analizadas las opciones existentes,*

ESTA ALCALDÍA RESUELVE:

- 1.- Jorge Oteiza Museo Etnografikoaren aseguru poliza bertan behera uztea eta berri bat egitea hilabete baterako
- 2.- Ebazpen hau interesatuei eta Tokiko Gobernu Batzordeari helaraztea bere ezaguera eta ondorioetarako

- 1.- Anular la póliza en vigor del Museo Etnográfico Jorge Oteiza, y contratar una nueva póliza por el plazo de un mes.
- 2.- Trasladar esta Resolución a los interesados y a la Junta de Gobierno Local, para su conocimiento y efectos.

3.- HIRIGINTZA

Ez da espedienterik tratatu.

No se ha tratado expediente alguno.

4.- ESKAERAK

DANIELLE SANCHEZ BIKOWA

2011/12/29an DANIELLE SANCHEZ BIKOWAk Azpilkuetako 20. poligonoko 118. lursailean segregazio baimena eskatu zuen. Udal aholkulari juridikoa, José Martín Abaurrea letratuaren txostena ikusirik 2012/03/05, SZ: 584/2012, Tokiko Gobernu Batzordeak erabaki du:

- 1.- Eskaera baimentzea. Ordaindu beharreko tasa 236,70 euroko da.
- 2.- Eskatzaileari, Udal aholkulari juridikoa, José Martín Abaurrea letratuaren txostena bidaltzea.
- 3.- Akordio hau interesatuari helaraztea bere ezaguera eta ondorioetarako.

Con fecha 29/02/2012 DANIELLE SANCHEZ BIKOWA solicitó licencia de segregación de la parcela 118 del polígono 20 de Azpilkueta. Teniendo en cuenta el informe del asesor jurídico municipal, letrado José Martín Abaurrea de 05/03/2012, RE: 584/2012, la Junta de Gobierno Local resuelve:

- 1.- Autorizar la solicitud. La tasa a abonar es de 236,70 euros.
- 2.- Remitir el informe del asesor jurídico municipal, letrado José Martín Abaurrea de 05/03/2012 al solicitante.
- 3.- Notificar el presente acuerdo a los interesados para su conocimiento y efectos oportunos.

LUIS MARICHALAR MUGICA

LUIS MARICHALAR MUGICAK 2012/03/07ko datarekin (E.Z. 578/2012) hazienda estentsiborako irekiera baimena eskatu du 76. poligonoko 528. lursailean asto baten jarduera legeztatzeko. Eskaera ikusirik Tokiko Gobernu Batzordeak erabaki du:

- 1.- Baimena ematea, honako baldintzak bete beharko dituelarik: Abeltzaintzako instalazioek Nafarroako Foru Komunitatean ingurumenaren aldetik bete beharreko baldintza teknikoak ezartzen dituzten Ekainaren 23ko 148/2003 eta 76/2006 Foru Dekretuak betez.
- 2.- Akordio hau interesatuari helaraztea bere ezaguera eta ondorioetarako.

LUIS MARICHALAR MUGICA con fecha de 07/03/2012 (E.R. 578/2012) ha solicitado licencia de apertura para ganadería extensiva en la parcela 528 del polígono 76 a fin de poder legalizar la actividad de un burro. Vista la solicitud la Junta de Gobierno Local ha acordado:

- 1.- Otorgar autorización, con sujeción a las siguientes condiciones: Las establecidas en los Decretos Forales 148/2003 de 23 de junio y DF 76/2006 por el que se establecen las condiciones técnicas ambientales de las instalaciones ganaderas en el ámbito de la Comunidad Foral de Navarra.
- 2.- Notificar el presente acuerdo a los interesados para su conocimiento y efectos oportunos.

ABALA

2011/12/02an OBRAS Y PREPARACION DE TERRENOS S.L.ren izenean "Elizondoko Jaime Urrutia kaleko zoladuraren" obraren abala bueltatzea eskatu dute. Hirigintzako udal aholkulariaren txostena (erref. 1202i014) ikusirik eta kontu-hartzailearekin kontsultatu eta gero Tokiko Gobernu Batzordeak erabaki du eskatutako abala bueltatzea.

En nombre de OBRAS Y PREPARACION DE TERRENOS S.L. con fecha 02/12/2011 solicitó la devolución del aval correspondiente a las obras de pavimentación de la Calle Jaime Urrutia de Elizondo. Visto el informe de la técnico municipal en urbanismo (ref. 1202i014), y consultada la interventora, la Junta de Gobierno Local acuerda la devolución del solicitado.

2011/12/02an OBRAS Y PREPARACION DE TERRENOS S.L. ren izenean "Elizondoko Francisco Joaquín Iriarte kaleko zoladuraren" obraren abala bueltatzea eskatu dute. Hirigintzako udal aholkulariaren txostena (erref. 1202i013) ikusirik eta kontu-hartzailearekin kontsultatu eta gero Tokiko Gobernu Batzordeak erabaki du eskatutako abala bueltatzea.

En nombre de OBRAS Y PREPARACION DE TERRENOS SL con fecha 02/12/2011 solicitó la devolución del aval correspondiente a las obras de pavimentación de la Calle Francisco Joaquín Iriarte de Elizondo. Visto el informe de la técnico municipal en urbanismo (ref. 1202i013), y consultada la interventora, la Junta de Gobierno Local acuerda la devolución del solicitado.

M^a JESUS IÑIGUEZ

M^a JESUS IÑIGUEZek eta **JONATHAN M. GREEN**ek 2012/03/02 datarekin SZ: 547/2012 idazki bat sartu dute 2005ean Monica Tubiari emandako obra baimena beraien izenean jartzea eskatuz. Kontuan hartuz Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legearen 194. artikulua, non obrak bukatzeko 3 urteko epea dagoela aipatzen da, Tokiko Gobernu Batzordeak erabaki du:

- 1.- Eskaera ez baimentzea.
- 2.- Eskatzaileei jakinaraztea etxean obra egin nahi badute eskaera udalean sartu beharko dutela proiektua eta aurrekontua barne.
- 3.- Akordio hau interesatuari helaraztea bere ezaguera eta ondorioetarako.

M^a JESUS IÑIGUEZ y JONATHAN M. GREEN con fecha de 2/03/2012 ER: 547/2012 han solicitado el cambio de titularidad a su nombre de la licencia de obra otorgada en 2005 a Monica Tubia (JGL 4/11/2005 acuerdo 5º). Atendiendo al artículo 194 de la Ley Foral 35/2002 de Ordenación del Territorio y Urbanismo, la obras deben finalizarse a los tres años de su concesión, la Junta de Gobierno local ha acordado:

- 1.- No autorizar la solicitud.
- 2.- Comunicar a los solicitantes que en caso de querer hacer obras deberán de solicitar la licencia pertinente adjuntando proyecto y presupuestos.
- 3.- Notificar el presente acuerdo a los interesados para su conocimiento y efectos oportunos.

I.E.S LEKAROZ-ELIZONDO

Iker Otaño Aramendi, I.E.S LEKAROZ-ELIZONDOren izenean Udalari eskatu dio, beraien ikasle bat Administratibo praktiketan, apirila, maiatza eta ekaina artean izatea. Eskaera aztertutik Tokiko Gobernu Batzordeak eskaera onartzea erabaki du. Ikaslea elebiduna euskara-gaztelania izan beharko da. Akordio hau interesatuei helaraztea bere ezaguera eta ondorioetarako.

Iker Otaño Aramendi en nombre de I.E.S LEKAROZ-ELIZONDO ha solicitado al Ayuntamiento que uno de sus alumnos esté en prácticas en el consistorio durante los meses de abril, mayo y junio. Analizada la solicitud la Junta de Gobierno Local acuerda aceptarla. El alumno deberá ser bilingüe Euskara-Castellano. Notificar el presente acuerdo a los interesados para su conocimiento y efectos oportunos.

5.-BESTEAK

MAITE OTEIZA zinegotzia

Maite Oteiza zinegotziak, Tokiko Gobernu Batzordera zuzendutako idazkian jakinarazi dio Amaiurko I.P.ko zuzendari den Nora Salbotx Alegria andereak, baimena eskatu duela Amaiurko Ikastetxean "Txistu eskola", ortziraleroko 18:00etatik 19:00etara, ikasturtea akitu bitartean, eta "Informatika hastapenak" jardunaldia, apirilaren 9tik 15erako astean egiteko. Tokiko Gobernu Batzordeak erabaki du proposamena onartzea. Akordio hau Maite Oteiza, interesatuei eta udal kontu-hartzaileari helaraztea bere ezaguera eta ondorioetarako.

La concejal Maite Oteiza, en escrito dirigido a la Junta de Gobierno Local ha dado cuenta que Nora Salbotx directora del C.P. Amaiur ha solicitado permiso para realizar en el citado centro todos los viernes hasta finalizar el curso de 18:00 a 19:00 "Txistu eskola" y del 9 a 15 de abril un curso de "Informatika hastapenak". La Junta de Gobierno Local ha resuelto aceptar la propuesta. Notificar el presente acuerdo a Maite Oteiza, a los interesados y a la Interventora municipal para su conocimiento y efectos oportunos.

192/2012 EBAZPENA

Idazkariak Herri Lanetako zuzendari nagusiaren 192/2012 ebazpenaren berri ematen du. Bertan jakinarazten da udalak Irurita-Ellizondo saihebiderearen proiektuaren espedientean aurkeztutako prezio orria ez dela onartu. Tokiko Gobernu Batzordea jakinaren gainean geratzen da.

El secretario da cuenta de la Resolución 192/2012, de la Directora General de Obras Públicas, por la que se rechaza la hoja de aprecio presentada por el Ayuntamiento en el expediente de "Construcción de la variante Irurita-Elizondo". La Junta de Gobierno Local se da por enterada.

JOAQUIN ARROSAMENA

Idazkariak azaltzen du 2012/02/17ko Tokiko Gobernu Batzordearen aktan akats bat dagoela **Joaquín Arrosamena** izenburuko puntuan. Segregazio akordioan lursaila Arizkun dagoela aipatzen da eta Erratzun dago. Akatsa materiala izanez eta kontuan harturik ez dela inolako eskubiderik urratu, Tokiko Gobernu Batzordeak erabaki du:

- 1.- Aipatutako akatsa zuzentzea.
- 2.- Akordio hau interesatuari helarazi bere ezaguera eta ondorioetarako

*El secretario expone que en el punto **Joaquín Arrosamena** del acta de la Junta de Gobierno Local de fecha 17 de febrero de 2012 hay un error material. En el acuerdo aparece que la parcela a segregar está en Arizkun cuando está en Erratzu. Teniendo en cuenta que la corrección no lesiona derecho alguno, La Junta de Gobierno Local acuerda:*

- 1.- Corregir el error señalado.
- 2.- Notificar el presente acuerdo a los interesados para su conocimiento y efectos oportunos.

Eta aztertzeko gai gehiagorik ez dagoenez, 12:00etan jarduneko presidentek Tokiko Gobernu Batzordea amaitutzat ematen du, akta hau sinatuz. Nik, idazkari naizen honek, hori ziurtatu egiten dut.

Y no habiendo más asuntos que tratar, el presidente en funciones levanta la sesión a las 12:00 horas, firmando la presente Acta, de lo que yo, el secretario, doy fe.

ONIRITZIA / Vº Bº
JARDUNEKO ALKATEA /
EL ALCALDE EN FUNCIONES
MIKEL ORTEGA ARRAZTOA

IDAZKARIA /
EL SECRETARIO

